

2022KO ABENDUAREN 1EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Bata

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hogeita bi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. Aurreko Aktaren onespena. 2022-10-27.

Aktaren berri eman ondoren, Nerea Manzisidor Mendizabal andreak esan du, pabiloia saltzeko lizitazioari buruzko puntuan adierazi zuela salmentatik lortutako dirua, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko terrenoak erosteko, erabiltzea. Aktan hori jasota ez dagoenez, jasotzea eskatu du. Aldaketa hori eginda, aho batez onartu da 2022-10-27ko akta.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

A.- ZERBITZUAK ESLEITZEA: Beasaingo udalerrian Agauntza, Eztanda eta Oria ibaietako landare inbaditzaileak erauzteak, landaketa berriak egitea eta zaborrak garbitzea. 2022HIBO0152

Ezagutzera eman da Kontratazio Mahaiaren akta 2022ko azaroaren 21ekoa, hau da:

“1.- 2022-10-29. Gobernu Batzordeak onartu zuen deialdi publikoaren bidez aipatutako obrak kontratatzea. Horretarako plegu administratiboak eta teknikoak onartu ziren. Prozedura irekia eta sinplifikatua.

2.- 2022-09-30. Euskadiko plataforman deialdia argitaratu zen.

3.- 2022-10-20. Proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

4.- Epe horretan enpresa lizitatzailerik bakarra aurkeztu da: SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (Erregistro data: 2022/10/19 11:12).

5.- Onartutako pleguaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira A artxibo elektronikoan: EKAB (1. eranskina) eta 3. Eranskina: giza eta material baliabide adskripzioa.

6.- Ondorengo kaudimena izatea eskatzen da:

Urteko negozio-bolumena, edo kontratuaren eremuko urteko negozio-bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi onenari dagokiona, enpresaburuaren jardueren eraketa- edo hasiera-dataren eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera: kontratuaren balio zenbatetsiaren (49.586,77 €) batez bestekoa, gutxienez.

Teknikoa:

a) Azken hiru urteetan kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda; zenbatekoa, gutxienez, honako hau izango da: = 23.140,49 €

b) Diziplina anitzeko lantalde tekniko bat izatea, enpresan integratuta egon edo ez. Honako hauek osatuko dute, gutxienez:

Lanen zuzendaria eta koordinatzailea (1):

- Biologiako lizentziaduna edo lizentziaduna, edo Ingurumen Zientzietako master baliokidea.

Landare inbaditzaileak desagerrarazteko eta ibaiak garbitzeko lantaldea (2):

- Eskatzen den titulaziorik gabe.

Hizkuntza-gaitasuna. Zuzendariaren eta koordinatzailearen kasuan, Europako Erreferentzia Esparruko C1 (EGA edo baliokidea) duela egiaztatu beharko du.

7.- Lizitatzzaileak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren, ondorengoa egiaztatu da: biek aurkeztu dute, DEUC dokumentua sinatuta eta datarekin, 3. Eranskina, tituluak eta eskatutako klasifikazioa.

Kaudimen baldintzak betetzen dituela adierazten du, nahiz eta ez esan zein den negozio-bolumena eta ezta ere, emandako antzeko zerbitzuak zeintzuk diren.

8.- Horren ondorioz, enpresa lizitatzzailea lizitazioan onartua izan da.

9.- 2022-10-27an B artxibo elektronikoari irekiera eman zitzaion (judizio bidez baloratuko diren esleipen-irizpideak)

Lizitatzzaileak aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoei pasa zitzaien txostena emateko. Txosten hori 2022-11ko datarekin eman da.

Kontratazio Mahaiak ontzat eman du txostena eta bere gain hartu du. Lizitatzzaileak lortutako puntuazioa atal honetan ondorengoa izan da: 30 puntutik 22,5 puntu lortu ditu.

2022-11-14an C kartazalaren irekiera burutu zen (formula automatikoen bidez baloratuko diren irizpideak:

- Memoria: 30 puntu
- Prezioa: 35 puntu
- Dibulgazioa eta auzolana. Ordu kopurua: 35

Lizitazioa prezioa, 33.057,85 € €koa da, BEZ gabe.

Enpresa lizitatzzaileak aurkeztu duen eskaintza ondorengoa izan da: 32.457,84 € + 6.816,15 € (BEZ): 39.273,99 €

Eskaintako prezioa baloratzeko formula aplikatu ondoren, lizitatzailleak guztira lortutako puntuazioa ondorengoa da:

LIZITATZAILEA	Memoria	Eskaintza ekonomikoa	Ordu kopurua	GUZTIRA
SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	22,5	1,27	35,00	58,77

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian Agauntza, Eztanda eta Oria ibaietako landare inbaditzaileak erauzteko, landaketa berriak egiteko eta zaborrak garbitzeko zerbitzua, SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA enpresari esleitzea.

Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarren. Urteko esleipen prezioa: 32.457,84 € + 6.816,15 € (BEZ): 39.273,99 €

Laugarren. Egikaritze epea: Bi urtealdi Seis meses desde la fecha en la que se establezca en el contrato para cada anualidad.

Luzapenak: urte bateko bi luzapen. Kontratu-organoak bi hilabeteko aurreabisua egingo du.

Bosgarren. Berme epea: Hiru hilabete kontratua amaitzen denetik kontatzen hasita.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Lurralde arloko koordinatzailea izango da.

Zazpigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

1. 3.245,78 €ko behin betiko fidantza.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.
3. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000.00 €koa.

Zortzigarren. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz eta ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Azaldu da aspektu batzuetan memoria ez dela hain zehatza izan eta horrek ekarri duela puntuen murrizketa.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Horrek kontratuari jarraipen gehiago egitea eskatzen du.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

B.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- SEASKA HAURRESKOLAKO BEROKUNTZA INSTALAZIOA ERABERRITZEA. LIKIDAZIOA. 2022PROB0003

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esleitutako kopuruarekiko likidazioa handitu egin da. Gauza bat da proiektuan akatsak egotea eta horren ondorioz, obra-unitate gehiago exekutatu beharra izatea eta beste bat, jarduera gehiago egikaritzea. Hori aldeaz aurretik aurreikusi daiteke.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Beraiekin bilerak egin ziren jakiteko zein behar zituzten. Bilera haietan ez zuten ezer eskatu baina obra hasi eta gero, aldiz, bai.”

Aho batez ondorengo obra likidazioa onartu da: Seaska Haurreskolako berokuntza instalazioa eraberritzeko obrei dagokiena: 48.019,96 €koa (BEZ barne).

- IXABEL OLANO PARKEAREN ETA KAROBI KALEAREN BIRGAITZEKO OBRAK. 1. ZIURTAGIRIA. 2022OBMA0015

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Zuhaitzak kendu dira eta planoan berriz, zuhaitzak ere aurreikusi egiten dira.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Bai, ondo garatzen ez ziren landare batzuk kendu egin dira baina beste berri batzuk landatuko dira.”

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria (lehenengoa) onartu da: Ixabel Olano parkearen eta karobi kalearen birgaitzeko obrei dagokiena: 37.849,02 €koa (BEZ barne).

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan atalean honelakoak aurkeztu dira:

ITOLAKO PABILOIAREN LIZITAZIOA

Idazkariak ezagutzera eman da Itolako industrialdeko B-6 zenbakia duen pabiloi industrial basterentzeko egindako lizitazioa hutsik geratu dela lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

IGARTZAKKO FUTBOL ZELAIAREN ETA MURUMENDIKO PATIOAREN ERABILERA

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu) adierazi du gune publiko horien erabilera publikoa izango zela esan bazen ere, jakin izan duela Igartza futbol zelaia erabiltzeko eragozpenak jarri direla. Aldi berean, Loinazpeko patioa aste bukaeretan asko erabiltzen dela dio eta argi falta dagoela aipatu du.

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): Murumendiko patioari dagokionean esan, beheko atea itxi egiten dela zikinkeria eta bandalismoa saihesteko eta, aldiz, aldapan dagoena irekita egoten da.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Igartza futbol zelaiari buruz, hartutako irizpideak hauek izan dira: tabernakoak jarduera ixten duenean atea irekita utzi behar du eta gauerako udaltzainek ixten dute. Erabiltzeko eragozpenak jarri badira, gogoratuko dugu erabilera publikoa duela. Loinazpe ikastetxearen patioarekiko, ez dugu argiteria faltarik somatzen. Horrezaz gain esan beharra dago Loinazpe ez dela udal eraikina baizik eta Eusko Jaurilaritzarena.

SAGASTIGUTIA PARKEA

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu) esan du, haizearen ondorioz eroritako zuhaitzak pilatuta daudela eta arriskua dagoela.

Alkate andreak (EAJ-PNV), erantzun du esanez teknikariarekin komentatu dela eta bere esanetan ez dagoela arriskurik.

LURRALDE BATZORDEA

Alkate andreak (EAJ-PNV) jakinarazi du abenduaren 21ean, 13,00etan Lurralde batzordea egingo dela, hilerriko obra-proiektua aztertzeko eta obra horiek lizitatu ahal izateko abenduaren 23an Gobernu Batzordea egingo dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.